



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN
UDALA
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA
DE
ARRANKUDIAGA
(BIZKAIA)

**2019KO MARTXOAREN 14AN, ARRANKUDIAGAKO ELIZATEKO UDALAK
EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**BERTARATUTAKO
ZINEGOTZIAK**

=====
ALKATEA

Itziar Duoandikoetxea Glez. anderea.

ALKATE-ORDEA

Garazi Abrisketa Serrano anderea.

ZINEGOTZIAK.

Nerea Zarate Aldama anderea
Unai Gorostizaga Arbide jauna
Ane Miren Esparza Montalban anderea.
Josu Beaskoetxea Azkueta jauna.

Urtzi Vergara Belaustegigoitia jaunak bere ez agertzea justifikatzen du.

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Daniel Maeztu Perez jauna.

=====

Itziar Duoandikoetxea Gonzalez anderearen gidaritzapean eta Daniel Maeztu Perez idazkari kontu-hartzaileraren parte hartzearekin, 2019ko martxoaren 14an, 18:35ak izanik, hasiera ematen zaio ez-ohiko osoko bilkurari.

**1. ARRANKUDIAGAKO UDALBATZAK, 2019KO URTARRILAREN 30EAN
IZANDAKO OHIKO BILERAREN IRAKURKETA ETA ONESPENA.**

**Lectura y aprobación del acta de pleno ordinario, celebrado el 30 de
enero de 2019.**

Udalbatzak bertaratutakoen adostasunarekin onartzen du 2019ko urtarrilaren 30ean izandako ohiko osoko bilkuraren akta.

2. HAINBAT GAIEN KONTU EMATEA:

- 2018 urteko aurrekontuaren likidazioa.

Dación de cuentas de asuntos de interés:

- Liquidación del ejercicio presupuestario de 2018.

Idazkariak azaltzen du, Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauko 49. artikulua dioenaren arabera, Toki entitateek aurrekontu orokorren likidazioari buruzko agiriak jarraiko ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen onartu behar dituztela.

Aipaturiko atalak, likidazioa toki entitateko buruak onetsiko duela kontuhartzaitzak txostena eman ondoren eta Udaltzari emango zaiola haren berri dio. Alkateak Dekretua martxoaren 11an sinatu zuen eta data berdinean idazkariak txostena prestatu zuen. Txostena eta dekretua aztergai daude espedientean. Datu aipagarrienak dekretuari begiratuta:

1.- Diruzaintzaren funts likidoak 12-31n		960.705,06
2.- Kobratu gabeko eskubideak 12-31n		351.510,68
Aurrekontu arruntean:	73.223,65	
Aurrekontu itxietan:	246.317,71	
Aurrekontutik kanpoko eragiketetan:	31.969,32	
Aplikatu gabeko kobrantzak:	
3.- Ordaindu gabeko obligazioak 12-31n		268.362,58
Aurrekontu arruntean:	111.344,11	
Aurrekontu itxietan:	15.645,48	
Aurrekontutik kanpoko eragiketetan:	141.372,99	
4.- Aplikatu gabeko partidak:		53.992,07
-Aplikatu gabeko kobrantzak		
+Aplikatu gabeko ordainketak	53.992,07	
5.- Diruzaintzako soberakina, guztira (1+2-3):		1.097.845,23
6.- Zalantzazko kobrantzako saldoak:		319.541,36
7.- Ukitutako finantzazioaren soberakina:		25.991,77
8.- Diruzaintzaren soberakina gastu orokorretarako (4-5-6):		752.312,10
9.- Indarreko aurrekontuaren aurrekontu-eragiketen emaitza:		98.645,02
10.- Aurreko ekitaldietan likidatu diren aurrekontuen eragiketen emaitza:		-745,41
11.- Diruzaintzaren soberakinarekin finantzatu diren obligazioen doikuntza:		119.649,81
12.- Desbideratzeen doikuntza ukitutako finantzazioa duten gastuetan:		9.501,20
13.- Aurrekontuaren emaitza (8+9+10+11):		208.048,22
14.- Gehitu daitezkeen kredituen soberakinak:		13.721,41

15.- Gehitu ezin daitezkeen kredituen soberakinak:	131.155,02
16.- Kredituen soberakinak, guztira (13+14):	144.876,43

Osoko bilkuratik pasa ondoren: aurrekontuen likidazioaren kopia bidaliko zaio Bizkaiko Foru Aldundiari, onetsi eta hurrengo hilabetea amaitu baino lehen.

3. ZOLLOKO HERRIKO TABERNA ERRENTAN USTIATZEKO ADJUDIKAZIOA. HORRELA BADAGOKIO, KONTRATAZIO MAHAIAREN PROPOSAMENAREN ONARPENA.

Adjudicación de la explotación mediante pago de renta de la Herriko Taberna de Zollo. Aprobación, si procede, de la propuesta de la mesa de contratación.

Alkate andereak 2019ko urtarrilaren 30ean egindako kontratazio mahiaren aktaren berri ematen du. Lehiakide bakar bat egon denez eta ezarritako baldintzak betetzen dituen, esleipena Jose Martin Burgos Gordalizari egitea proposatzen da kontratazio mahaitik.

Idazkariak azaltzen du, errentamendua 5 urterako izango denez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen bigarren xedapen gehigarriak ezartzen duela, 4 urtetik gorako kontratuak osoko bilkurari dagokiola esleitzea.

Lehiaketaren oinarri-tasa 488,00 euroko kuota (BEZa kenduta) da, hilero ordaintzekoa. Urtero KPI-ren eguneratuko dena.

Bertaratutakoen adostasunarekin, Martin Jose Burgos Gordalizari esleitzen zaio kontratoa. Bozketan ez du parte hartzen Garazi Abrisketa Serrano zinegotziak (EH Bildu), 7/1985 Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen legearen 76 artikuluan jasotzen den bateraezintasun-arrazoiengatik.

4. ZOLLOKO BOLALEKUA ERABILTZEKO ARAUDIAREN HASIERAKO ONARPENA. EZTABAIDA ETA HORRELA BADAGOKIO, ONARPENA.

Aprobación inicial de Reglamento para el uso de la Bolera de Zollo. Debate y aprobación, si procede.

Alkateak aipatzen du, ikusita Zolloko bolalekua gaur egun ez dela boloetara jolasteko leku bezala erabiltzen, beste mota bateko erabilerak arautzeko Zolloko auzo batzarretik beharrezkoa ikusi dela araudi bat egitea. Alkate ordeak, Zolloko auzokide bezala, aipatzen du araudia Zolloko auzo batzarrak aztertu eta onartu egin dela.

Bertaratutakoen adostasunez araudia behin behinean onartzen da.

Idazkariak informatzen du, osoko bilkuraren hasierako onarpena onartu dela, gero, gutxienez 30 egunean jendaurrean jarri behar dela eta interesdunei entzunaldia emanaz, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien inguruan osoko bilkurak erabakia hartu beharko luke eta osoko bilkurak behin betiko onarpena ematea. Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da.

5. HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGAREN UDAL ORDENANTZA FISKALAREN HASIERAKO ONARPENA. EZTABAIDA ETA HORRELA BADAGOKIO, ONARPENA.

Aprobación inicial de la Ordenanza Fiscal Municipal reguladora del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana. Debate y si procede, aprobación.

Alkateak azaltzen du beharrezkoa dela gaur egun dagoen ordenantza fiskala eguneratzea, Foru Arauari eta balioen ponentzia berriari egokitzeko. Gaia lantaldean landu zela eta orain onartzera ekartzen dela osoko bilkurara.

Josu Beaskoetxea eta Ane Miren Esparza, EAJ –ko zinegotziek esaten dute, lantaldean gaia landu zela baina gainbalioa ezartzerako orduan eta kuota jartzerako orduan ezarri beharreko kopuruak ez zirela adostu. Inguruko herrien datuak aztertuta, eurek ez daude ados gainbalioa kalkulatzeko orduan Foru Arauak ahalmentzen duen gehinezko kopuruak ezartzearekin.

Eztabaida sortzen da jarri beharreko kopuruaren inguruan eta Josu Beaskoetxeak (EAJ) proposatzen du, gainbalioa kalkulatzeko ezarri beharreko kopurua 2,7 koa izatea urte tarte guztietarako.

Nerea Zarate zinegotziak (EH Bildu) ordenantzaren proposamenak dakartzan kopuruak bozkatzeko eskatzen du, alegia,

- a) De 1 a 5 años 3,7%
- b) Hasta 10 años 3,5%
- c) Hasta 15 años 3,2%
- d) Hasta 20 años 3,0%

Alkateak, eztabaida ikusita eta bi proposamen ezberdin daudenez, gaia gaiordenetik kentzea erabakitzen du eta gai alderdi bakoitzak landu ondoren berriro ere osoko bilkurara ekartzeko konpromisoa hartzen du.

6. BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN ETA ARRANKUDIAGAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA. HORREN ZUZENBIDE PUBLIKOKO SARRERAK NAHITAEZKO PROZEDURAREN BITARTEZ BILTZEKO. EZTABAIDA ETA HORRELA BADAGOKIO, ONARPENA.

Convenio entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Arrankudiaga, para la recaudación ejecutiva de los ingresos de derecho público de esta entidad local. Debate y si procede, aprobación.

Idazkariak azaltzen du gaur egun udalak ez daukala diru bilketa exekutiboko prozedurarik, hau da, zergak edota tasak ordaintzen ez dituzten herritarrek, ordaindu barik bukatzen dutela. Era horretan, kontuan izanik Bizkaiko Foru Aldundiak diru bilketa exekutiboko prozedura bere gain hartzeko aukera ematen duela, hitzarmen bat sinatzea proposatzen

da. Udalak borondateko fasea martxan jarri beharko luke, informazioa pasa Foru Aldundiari eta ordaintzen ez dutenei Aldundiak eskatuko lieke premiazko prozeduraren bitartez. Aldundiak, kobratzen denaren %1a jasoko luke zerbitzuarengatik.

Ane Miren Esparza zinegotziak (EAJ) galdetzen du ea zenbat urtetako zergak kobratu ahal diren. Idazkariak erantzuten dio, azken 4 urteetako zergak eskatu ahal direla. Era berean gaineratzen du, ez direla soilik zergak baizik eta zuzenbide publikoan oinarritzen diren diru eskera guztiak.

Bertaratutako en adostasunarekin erabakitzen da aipatutako hitzarmena sinatzea.

7. BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOAREN HASIERAKO ONARPENA. UDAL ONDASUNEN INBENTARIOAREN ATAL BEREZITUA BEZALA. EZTABAIDA ETA HORRELA BADAGOKIO ONARPENA.

Aprobación inicial del Inventario de caminos públicos, como parte diferenciada del inventario de bienes municipales. Debate y si procede, aprobación.

Idazkariak azaltzen du, Tokiko Erakunde onasunen Erregalamentuak bere 17 artikuluan derrigortzen ditu tokiko erakundeak bere ondasunen inbentario bat edukitzera. Beraz, bide publikoen inbentarioa, inbentario orokor baten atal bat izango litzateke.

Alkate ordeak azaltzen du Zolloko herri batzarrak onartu zuela aipatutako bideen inbentarioa egitea eta horretako enpresa bati esleitu zitzaion eta honezkero aurkeztu dute euren lana.

Idazkariak azaltzen du hasierako onarpena osoko bilkurari dagokiola eta gero jende aurrean, 2 hilabete egotea proposatu duela enpresak. Era horretan, eurek nahi duten herritarrekin batzartzeko prest daudela.

Bertaratutako en adostasunarekin hasierako onarpena ematen zaio bide publikoen inbentarioari eta 2 hilabete jende aurrean egotea onartzen da.

8. ALKATETZAREN DEKRETUAK UDALBATZARI JAKINARAZTEA.

Puesta en conocimiento del pleno de los decretos de alcaldía.

01-2019 zenbakidun alkate dekretutik, 10-2019 zenbakidunera sinatutako dekretuen berri ematen da.

Inork ez du galderarik edo zalantzarik alkateak sinatutako dekretuen inguruan.

Eta jorrazteko gai gehiagorik ez denez egon, Udalburuak amaiera eman dio Ekitaldiari eta bilkura 2019ko urtarrilaren 30ean 19:27an amaitu da. Akta hau alkatea sinatu du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut: =====

Behin plenoa bukatua, alkate andereak gainerako zinegotzietan Jose Antonio Sainz Nieto jaunari, behin behinean idazkari kontu-hartzaile bezala egindako lana eskertzeko bidali beharreko esker oneko idatzia sinatzera pasatzen die.

Eta horrela jasota geratu eta Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztara eta Eusko Jaurlaritzara igorri eta Jendaurrean ezar dadin, hau egiten dut Itziar Duoandikoetxea

Gonzalez alkate andrearen aginduz eta oniritziarekin, Arrankudiagan 2019ko martxoaren 14an.

ALKATEA

IDAZKARIA